



AKTEA/01

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA (2026-03-03)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2026-03-03 (Asteartea)
Lekua:	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	8:31
Amaiera-ordua:	8:57
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	
Idazkaria:	BAREÑO DUÑABEITIA GOTZON



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0015763B00X4M4S9K4Y8N0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/03/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/03/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/03/2026 13:23:36

DOCUMENTO: 20261406523

Fecha: 04/03/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2025-11-21 TGB (14)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Norbere arazoetako ordaindu gabeko baimenak onartzea. Martxoaren 16,17,18,20,23,24,25,26,27 egunak.
- 4.- Arostegi 17an igogailua jartzeko obra lizentziaren iraungitze espedientea hastea onartzea.
- 5.- 118/2025 Epaiaren berri ematea.
- 6.- 280/2025 Epaiaren berri ematea.
- 7.- Alkatetza dekretuen berri ematea.
- 8.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2025-11-21 TGB (14)

Bertaratutako batzarkideek 2025eko azaroaren 21eko 14/2025 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDako PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0015763B00X4M4S9K4Y8N0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/03/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/03/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/03/2026 13:23:36

DOCUMENTO: 20261406523

Fecha: 04/03/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



3.- NORBERE ARAZOETAKO ORDAINDU GABEKO BAIMENAK ONARTZEA. MARTXOAREN 16,17,18,20,23,24,25,26,27 EGUNAK.

Xedea

Norbere arazoetarako soldata gabeko baimena. Udal honetako bitarteko funtzionarioa den 30686966K NAN zenbakidun langilearen eskaria onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2026ko urtarrilaren 29an, 30686966K NAN zenbakidun erosketako bitarteko funtzionarioak hurrengo eskaria egin du:

“Udalhitzeko 62.artikulua.dioenaren arabera, norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimenak eman ahal izango dira; gutxienez 7 egun.

Goian aipatutakoa kontuan izanda, martxoaren 16,17,18,20,23,24,25,26,27 egunak ordaindu gabeko baimenak eskatu nahi ditut.”

Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udaleko lan-kontratadun langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 62. artikuluan honako hau ezartzen da:

“ 1. Norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimenak eman ahal izango dira.

2. Baimen horren gutxienerako iraupena etenik gabeko 7 egun naturalekoa izango da eta baimen egun horien batuketa ezin izango da lau hilabetekoa baino gehiagokoa izan bi urtean.

3. Administrazioan bertan edo besteren baten mailaketan gora egiteko asmoarekin egin beharreko hauta-ikastaroetan edo praktika-epeak bete ahal izateko, baimenak emango dira. Ikastaroen eta praktiken iraupen bera izango du baimenak, baina baimen horiek ez dute ordainsaria jasotzeko eskubiderik ematen.”

Bigarrena: Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorra onartzen duen 2064/1995 Errege Dekretuaren 69.artikuluan ezarritakoaren arabera, ordainsaririk gabeko



baimenean, kotizatzeko betebeharrak bere horretan dirau. Ondorioz, Udalak, ordainsari gabeko baimen egoeran dagoen langilearen kotizazioak ordaindu behar ditu epealdi horretan.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

BAKARRA: 30686966K NAN zenbakidun erosketako bitarteko funtzionarioak 2026ko martxoaren 16tik 27ra arte norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimena onartzea.

4.- AROSTEGI 17AN IGOGAILUA JARTZEKO OBRA LIZENTZIAREN IRAUNGITZE ESPEDIENTEA HASTEA ONARTZEA.

Xedea

Arostegi kalea 17 zenbakiko eraikinean igogailua jartzeko emandako obra lizentziaren iraungipen espedientearen hasiera.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2020ko irailaren 30ean, Tokiko Gobernu Batzarrek Arostegi kalea 17ko jabe elkarteari eraikinean igogailua jartzeko obra lizentzia eman zion.

Bigarrena.- 2020ko azaroaren 24an, ****3142S NAN zenbakidunak erabaki horren aurkako birjarpen errekurtsua aurkeztu zuen.

Hirugarrena.- 2020ko abenduaren 22an, Tokiko Gobernu Batzarrek ****3142S NAN zenbakidunak ezarritako birjarpen errekurtsua ezeztatu zuen.

Laugarrena.- 2021eko martxoaren 24an, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1. Zenbakiko Epaitegian aurreko erabakiaren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtsua ezarri zen.

Bosgarrena.- 2021eko martxoaren 29an, Arostegi Kalea 17ko jabe elkarteak idatzia aurkeztu zuen udalean administrazioarekiko auzi errekurtsuaren inguruan berri emonaz eta lizentzia ez iraungitzeko eskatuz.

Seigarrena.- 2021eko apirilaren 14an, ****3142S NAN zenbakidunak

4



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA0015763B00X4M4S9K4Y8N0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/03/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/03/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/03/2026 13:23:36

DOCUMENTO: 20261406523
Data: 04/03/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0015763B00X4M4S9K4Y8N0



lizentziaren iraungipena eskatu zuen.

Zazpigarrena.- 2021eko ekainaren 8an, Tokiko Gobernu Batzarrak Arostegi Kalea 17 zenbakiko eraikinean igogailua jartzeko emandako obra lizentzia ez iraungitzea eta haren epea luzatzea onartu zuen:

“Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta ahobatez erabaki du:

LEHENENGOA: Arostegi kalea 17ko jaube alkarteak egindako eskaria baiezte, beraz, obra lizentzia ez iraungitzea eta haren epea luzatzea. Obrak exekutatzeko epea honako hau izango da: administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren inguruko sententzia irmoa jasotzen danetik hasita, sei hilabetekoa, obrak hasteko epea hilabetekoa eta, etenik badago, epea hilabetekoa izango da.

BIGARRENA: 30.683.142-S NAN zenbakidun jaunak obra lizentzia iraungitzeko egindako eskaria ezeztatzea.”

Zortzigarrena.- 2022ko irailaren 26an, Bermeoko Udalak Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1. Zenbakiko Epaitegiko sententzia jaso zuen, ****3142S NAN zenbakidunak ezarritako errekurtsoa ezeztatuz.

Bederatzigarrena.- 2022ko urriaren 19an, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 1. Zenbakiko Epaitegiko sententziaren aurkako apelazio errekurtsoa jarri zuen ****3142S NAN zenbakidunak.

Hamargarrena.- 2024ko abenduaren 11n, Justizia Auzitegi Nagusiko sententzia ebatzi zen, berriro ere, apelazio errekurtsoa ezeztatuz.

Hamaikagarrena.- 2026ko otsailaren 17an, ****3142S NAN zenbakidunak lizentziaren iraungipena eskatu zuen.

Hamabigarrena.- 2026ko otsailaren 27an, Urigintzako AOTk txostena egin zuen.

Argudioak

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 215. Artikuluan adierazten denez,



lizentzia ematen duen administrazio ebazpenak berariaz adierazi beharko ditu obrak hasteko, gehienez eteteko eta bukatzeko epeak.

Illo beretik, arau horren 216. Artikuluaren arabera, obrak lizentzian ezarritako epeak urratuz hasi gabe edo amaitu gabe badaude, edo sustatzaileari egotz dakioken arrazoiren batengatik etenda badaude, udalak lizentziaren iraungipena adieraziko du, dagokion administrazio prozedura izapidetu eta interesdunari entzun ondoren, inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik izan gabe; hala ere, artikulua beraren bigarren atalaren arabera: Lizentzian jasotako epeak luzatzeko eskaera ere egin daiteke, arrazoiak emanez; eta udalak, bidezkoa dela uste badu, epe hori luzatzea erabaki dezake.

Bigarrena.- Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.q) artikulua arabera, zein 2/2006 Legeko 209.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskumena Alkatearena da; hala ere, 2026 1131 Alkatetza Dekretuz eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Arostegi kalea 17 zenbakiko eraikinean igogailua jartzeko emandako obra lizentzia iraungitzat jotzeko espedienteari hasiera ematea.

BIGARRENA.- Interesdunari 15 eguneko alegazio epea ematea, egoki deritzona adieraz dezan.

HIRUGARRENA.- Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

5.- 118/2025 EPAIAREN BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 118/2025 epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

"118/2025 epaiak honela dio hitzez hitz:

FALLO :Estimar en parte el recurso contencioso-administrativo formulado por el letrado Sr. Martínez de la Hidalga en representación de D^a N. A. M., D^a L. D. S. y D. J. E. L. frente a los Decretos de la Alcaldía del Ayuntamiento de Bermeo números 948, 949 y 950, del año 2023,



por los que se resuelve “PRIMERO: Desestimar la petición formulada (...), por las razones argumentadas, y por tanto, no modificar parcialmente la RPT actualmente vigente y no considerar los nuevos niveles retributivos derivados de la valoración realizada al puesto de trabajo, así como desestimar la solicitud de abono de las retribuciones que pudieran corresponder en consecuencia.” (...) “TERCERO: Desestimar la solicitud de reconocimiento de un complemento de productividad equivalente a la diferencia entre el nivel del puesto que ocupa y el que debería corresponderle por su trabajo, responsabilidad y exigencia, conforme al artículo 5 del Real Decreto 861/1986, de 25 de abril, por el que se establece el régimen retributivo de los funcionarios de la Administración Local”, en el solo sentido de condenar al Ayuntamiento de Bermeo a acometer y culminar la modificación de la valoración de los puestos de trabajo de los recurrentes en los términos que considere oportunos dentro de su margen de autodeterminación.”

6.- 280/2025 EPAIAREN BERRI EMATEA

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 280/2025 epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

“280/2025 epaiak honela dio hitzez hitz:

1.- Se declara terminado el presente recurso contencioso-administrativo interpuesto por el Procurador Sr. B.M., en representación de D^a G.D.G., contra la actuación administrativa referenciada por satisfacción extraprocesal. 2.- No se hace expresa declaración de las costas causadas. 3.- Una vez firme esta resolución, remítase testimonio de la misma a la Administración demandada, interesando acuse de recibo en el plazo de DIEZ DÍAS, y unido éste a los autos, archívense los mismos. MODO DE IMPUGNAR ESTA RESOLUCIÓN: mediante RECURSO DE APELACIÓN EN UN SOLO EFECTO, por escrito presentado en este Juzgado en el plazo de QUINCE DÍAS, contados desde el siguiente a su notificación (artículo 80.1 de la LJCA), y previa consignación en la Cuenta de Depósitos y Consignaciones de este órgano jurisdiccional en el BANCO SANTANDER, con n.º 4772000094028025, de un depósito de 50 euros, debiendo indicar en el campo concepto del documento resguardo de ingreso que se trata de un "Recurso". Quien disfrute del beneficio de justicia gratuita, el Ministerio Fiscal, el Estado, las Comunidades Autónomas, las entidades locales y los organismos autónomos dependientes de todos ellos están exentos de constituir el depósito (DA 15.ª LOPJ).”

7.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0015763B00X4M4S9K4Y8N0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/03/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/03/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/03/2026 13:23:36

DOCUMENTO: 20261406523

Fecha: 04/03/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0015763B00X4M4S9K4Y8N0



8.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20260303_TGB.mp4" izeneko dokumentu digitalean, " **Tokiko Gobernu Batzarra 03-03-2026**" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditante elektronikoari erantsitako dokumentu lektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

06a5def0519268a013a0225fa683eeb5bd73be2bb834ccd8500194b618cff8c8

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskuragarri egongo da hurrengo helbide honetako atari pribatuan:

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua>

Orri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0015763B00X4M4S9K4Y8N0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 04/03/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 04/03/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 04/03/2026 13:23:36

DOCUMENTO: 20261406523

Fecha: 04/03/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

